

JARDUERA FISIKOA ETA KIROL JARDUERA UPV/EHUekin ARABAKO CAMPUSEAN HITZARTUTAKO ENTITATEETAN EGITEKOA

UPV/EHUekin itundutako entitateetan egiten den jarduera fisikoaren eta kirol-jardueraren kudeaketa errazteko jarraibideak:

UPV/EHU gradu-ikasketak hasten badituzu edo egiten badituzu, hitzartutako entitatearen batean jarduera fisikoa edo kirol-jarduera egiteagatik dagozkion graduako hautazko kredituen urteko aintzatespena lor dezakezu.

1.- Itundutako entitateetan matrikulatzea eta tarifa-murrizketa

Itundutako entitatearen batean matrikula zaitezke, edo entitatearen baten aurreko kide zarela aprobetxatu. Gogoratu, unibertsitate-komunitatekoa zarela egiaztatuta, adostutako tarifa-murrizketa aplikatzeko eskubidea duzula. Hori dela eta, entitateak zure matrikularen frogagiria erakusteko eskatu ahal izango dizu, urte akademikoan eta hurrengo urte akademikoaren hasieran.

2.- Jarduera fisikoaren eta kirol jardueraren alde aurretiko erregistroa

Urtean behin, ikasturtean zehar egingo duzun jarduera fisikoa edo kirol-jarduera erregistratu beharko duzu, **nahitaez**, UPV/EHUren web orriaren bidez. Gogoratu erregistroa urtero berritu behar dela.

https://www.ehu.eus/eu/web/kirolak-araba/-/info_centros-deportivos-y-gimnasios-concertados

Ezinbesteko baldintza da hori kirol-entitatean egiten duzun jardueragatik kredituak lortzeko.

Garrantzitsua:

- Indarrean dagoen ikasturtean garatu dituzun jarduerengatik kredituak baino ez dira ziurtatuko.
- Ezin izango da kredituen amortizazio-ziurtagiririk egin, alde aurretik jarduera ez bada adierazitako aplikazioan inskribatu.

3.- Graduako ikasleek JARDUERA FISIKOA ETA KIROL JARDUERA HITZARTUA EGIN IZANAREN ziurtagiria

UPV/EHUren graduako ikasketetan kredituak aitortu eta transferitzeko aratuegiak gai honi aplikatzekoak diren irizpideak ezartzen ditu:

- Gehienez aitortuko direnak: 3 ECTS/ikasturteko.
(ECTS 1 = 25 orduko jarduera).
- Aitortutako gehieneko asistentzia:
2 egun/astean, ordu 1/egunean.
(Aipatutako mugak gainditzen dituen asistentzia ez da kontuan hartuko graduako kredituak amortizatzeke).

Horrenbestez, jarduera fisikoan edo kirol jardueran emango dituzun ordu kopurua alde batera utzita, hau bakarrik hartuko da kontuan: astean 2 ordu, egunean ordu 1.

JARDUERA EGIN IZANAREN Ziurtagiria eskatu ahal izango diozu entitate itunduari, gutxienez 0,5 ECTS kreditu lortzeko eskatzen den gutxienera iristen zarenean, hau da, jarduera efektiboko 13 ordu, hau da, astean bi ordu bi egunetan, egunean ordubete, astean bitan.

Eranskinean betetzeko ziurtagiri erdua eskuratzen da.

Garrantzitsua:

Itunpeko entitateak **JARDUERA EGIN IZANAREN Ziurtagiria** sinatzen duen unea edozein dela ere, Arabako Campuseko Errektoreordetzan aurkeztu beharko duzu, eta bertan **JARDUERA AITORPENAREN Ziurtagiria** lortuko duzu.

<https://www.ehu.eus/eu/web/kirolak-araba/hautazko-kredituak>

Hauek dira **JARDUERA EGIN IZANAREN Ziurtagiria Arabako Campuseko Errektoreordetzan** aurkezteko epeak:

- Arrunta: maiatzaren 1etik irailaren 30era.
- Ohiz kanpokoak: (graduak azken mailako ikasleentzat soilik): urtarrila.

JARDUERA AITORPENAREN Ziurtagiria lortu ondoren, zure Fakultateko edo Eskolako Idazkaritzan aurkeztu beharko duzu, bertan **KREDITUAK AMORTIZATZEKO Ziurtagiria** lortzeko ematen dizkizuten barne-kudeaketako jarraibideen arabera.

Eranskina

JARDUERA FISIKOA ETA KIROL-JARDUERA HITZARTUA EGIN IZANAREN ZIURTAGIRIA

Ikaslea	
Izen-abizenak:	
NAN	

Hitzartutako entitatea	
Entitatearen izena:	
Arduraduna	
Izen-abizenak:	
NAN	
Kargua:	

Jarduera fisikoa edo kirol jarduera	
Jardueraren deskribapena:	
Hasiera data: (UUUU/HH/EE)	
Amaiera data: (UUUU/HH/EE)	
Asteko ordu kopurua:	
Eguneko ordu kopurua:	

Entitateko arduradunaren sinadura	
Tokia, data eta zigilua	

¹ Hau da jarduera fisikoa eta kirol praktika egiteagatik graduko kredituen amortizazioa arautzen duena: **Erabakia, 2012ko maiatzaren 21ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearena. Horren bidez, Graduko Ikasketetan Kredituak Transferitu eta Onartzeko Arautegia argitaratzen da, 2012ko maiatzaren 16ko Gobernu Kontseiluan onartutakoa.**

- Gehienez aitortuko direnak: 3 ECTS (ECTS 1 = 25 orduko jarduera) ikasturteko.
- Aitortutako asteko gehieneko asistentzia: 2 egun/astean.
- Aitortutako eguneko gehieneko asistentzia: ordu 1/egunean.
- Aipatutako mugak gainditzen dituen asistentzia ez da kontuan hartuko graduko kredituak amortizatzeke.

Ziurtagiri hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean aurkeztu beharko du interesdunak Arabako Campuseko Kirolak-en maiatzaren 1tik irailaren 30era ohiko epean eta Graduko azken ikasturteko ikasleentzat urtarrilean ohiko kanpoko epean.